



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-03-14

VIIURTEA 1.653.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Apirilaren 4r arte ikusgai izango dira Eli Garmendia artista tolosarraren erakusketa. IÑIGO TERRADILLOS

ARTISTEN LAN EGITEKO MODUA ERAKUTSIZ ARTEA EGITEA

TOLOSA GKo Galerian erakusketa irekiko du gaur Eli Garmendiak; Bartzelonako artisten komunitate baten lana erakutsi nahi du 4

Ur kontsorzioan sartzeaz ariko da hizketan Iñaki Antiguedad geologoa

AMEZKETA Abantailak eta trabak aztertuko diru, ezker abertzaleak antolatuta 5

MOISES MATO ANTZERKI PEDAGOGOIA ETA ZUZENDARIA

«Ikasleek konpromiso sentimendu sakonarekin amaitzen dute ikastaroa»

ADUNA Entzutearen Antzerkia lantzeko ikastaroa antolatu du hilaren 28rako eta 29rako 6

Saharar herria omenduko dute gaur Ahoz aho jaialdian

TOLOSA Erbestean hezitako saharar poeta talde batek emanaldia eskainiko du Auzo Etxean 3



A. IMAZ

EGOITZ ITURBE ESKUALDEKO ELA-REN IDAZKARI NAGUSIA

«Jendea elkartzeko aukera da krisia, hori esaten dugu batzarretan»

TOLOSALDEA Langileen eta patronalaren arteko interesak «oso desberdinak» direla dio 2

Frida Pipol eta Acido C taldeen eskutik Funky Gaua antolatu dute

ANOETA Gaur, 23:00etatik aurrera, hasiko da festa Gaztetxean 7

Castrori buruzko materiala bidali du Ertzaintzak Madrilera

VILLABONA Ertzaintzak dioenez, «atxiloketaren deskribapen zehatza» da 7



E Elkarrizketa

EGOITZ ITURBE › Eskualdeko ELAren idazkari nagusia

Sindikatuak»

Kapitalismoaren krisiaren aurrean ELA sindikatuak 'Aberastasuna banatu' lelopean kanpaina berria jarri du abian Tolosan.

ASIER IMAZ

Kapitalismoaren krisiaren inguruan haserre hitz egin du Egoitz Iturbek (Legazpi, 1976): «Denok egoera berdinean aurkitzen baldin bagara ere», patronalaren, administrazio publikoaren eta langileen interesak «oso desberdinak» direla aipatu du eskualdeko ELAren idazkari nagusiak; oraingo honetan «aurre eginez gero» ziur dago krisi hau langileek ez dutela ordainduko.

Krisiaren mamua zabaldu zute-nean, gertuan ez zen eraginik sumatzen. Gaur ez dago inor ERE edo kaleratzeak gertutik bizi ez dituenik.

Komunikabideetan zabaltzen hasi zirenean oraindik ez zen ikusten krisiaren eragina ekonomia errealean. Urria, azaroa,... ingurumari horietan hasi zen ikusten. Nola? Patronalaren eta administrazio publikoaren malgutasun handia agerian geratu zenean.

Zer esan nahi duzu malgutasun hitzarekin?

Azpikontrazioa, denbora baterako lana, autonomo faltsuak deritza... Zergatik esaten dugun hori? Hego Euskal Herriko eta eskualdeko datuak oso esanguratsuak direlako. 2.008an zehar 40.000 lanpostu galdu ziren. Hauetatik 34.900 soldatepekoak. Beste 4.100 autonomoak, familia laguntza jasotzen zutenak... inongo babesik gabe gelditu direnak. Ia 35.000 mila kaleratze hauetatik gehienak, argi esan beharra dago, patronalari dohainik atera zaizkio. Bai, dohainik. Denbora baterako kontratuak asko daude eta enpresiek hauek gainetik kendu dituzte. Pentsa, ERE bitartez galdu diren lanpostuak %3a besterik ez dira. Patronalak edukitu duen malgutasuna izugarritzakoa izan da. Eskualdeko enpresa askotan argi ikusi dugu hori: enpresa txikiak eta eraikuntza arlokoak EREak erabili beharrean obra amaiera delakoa erabili dute, eta honen bidez kaleratze ilegalak burutu dituzte, jendea dohainik edo oso diru gutxiren truke kale gorrian utzit.

Arduradunak bilatzerako uanean, sindikatuak zaku horretan sartuta, zein da ELAren irurketa?

Autokritikoak izan behar gara, zailtzarrik gabe. Baina gure erantzunkizuna langileak antolatzea da; gure eskubideak babesteko. Patronala gaur egun oso oldarkor dago; 92-93ko krisian langileen eskubideak asko murriztu zituzten



ASIER IMAZ

«Krisia jendea elkartzeko aukera bat dela esaten dugu batzarretan»

eta orain ere zer egiten ari dira krisia hasi zenetik? Ezegonkortasunaren ondorioz langile asko kalera bota dituzte, denboraldi baterako kontratuak, diskriminazioak, azpikontrazioak,... eta denak kale-rala. Alcelor Olabarriari hori gertatu da adibidez, denboraldi baterako kontratuazuten langile guztiak kalera bota dituzte.

Krisia, erabaki neoliberalak medio, langileen eskubideak murrizteko erabiltzen ari direla uste duzu?

Eurek krisia aukera bezala ikusten dute. Langileok ez baldin bagaude tentuz, lan baldintzak murriztu egingo dizkigute, egoera horrelakoa dela esanaz, denok utzi berean aurkitzen garela etabar. Baina hori ez da egia.

Langileentzat ere aukera bat izan daiteke, ezta?

Hauek euren helburuak ez lortzeko langileen arteko elkarlana egon behar duela azaltzeko aukera bat da. Hauek etorri arte ezin dugula itxaroten egon esateko aukera bat da. Aurrean jarri eta esan, ez dizkiguzue lan baldintzak aldatu eta murriztuko. Ez dugu utziko jendea kalera bota dezazuen. Krisia guk ez dugu sortu eta irtenbidea ez da guregandik pasatzen. Orain egoeraren arabera dena es- trukturala bihurtu nahi dute, gero 92-93an gertatu zena ikusita, argi dago; utzi berdinean gaude baina interes desberdinekin. Enpresan

jarraitzeko lehen interesatuak langileak gara, baina azken 15 urte hauetan ekonomiak goraka egin duenean langileen artean ez da

«Maiatzaren barnean eskualdeko manifestazio oso garrantzitsua egingo dugu Beasainen»

inongo banaketarik egon; aberastanaren banaketa lotsagarria egin da. Egiten dugun asanblada bakoitzean guretzat hau aukera bat dela argi esaten dugu; jendea elkartzeko eta 'bai patronalari bai administrazioari hau guk ez dugula ordainduko esateko aukera bat.

LAB sindikatuak duela bi aste greba orokorra hitz egin zuen. Hori bai, bakarrik grebara ez zirela joango ere argi utzi zuten.

Ezer ez dugula bazterten esaten ari gara. Ikusi beharko da, egoera aztertuta... baina ez dugu ezer albo bateratuazuten.

Horrek zer esan nahi du?

Etorri daiteke. Gu orain barne lan bat egiten gaude: eskualdeko 218 delegatuak ikastaroak egin ditugu eta hausnarketa sakon bat egin dugu; egoera sindikala zein den, patronalaren eta administrazioaren helburua zein den, gure oinarriak zein diren... Martxoaren 10ean Leidorren delegatuen batzarra egin genuen. Bertan 500 pertsona inguru bilduginen eta ba-

tzarra oso interesgarria izan zen. Jendeak izugarritzako parte-hartzea edukitu zuen eta gogotsu agertu zen, baita haserre ere. Maiatzaren 15ean manifestazio oso garrantzitsua egingo dugu eskualdean, hau ez dela posible adierazteko. Krisia langileak kaleratzeko, eskubideak murrizteko,... ez da erabili behar eta hori azalduko dugu. Krisiaren erantzuleak ez dira langileak. Baina administrazioa eta patronala oso oldarkor daude; Espainiako enpresariak EREak administrazioaren onespenean gabe atara nahi dituzte aurrera; INEM pribatizatu nahi dute... ADEGI berriz kaleratzeak oso garesti iritertzen zaizkiela esanaz dabil, baina ez dute esaten kaleratu dituzten langile gehienak dohainik bota dituztela; norbanako kaleratze asko martxan ipini dituztela. Benetan esaten dizut, kaleratzeak *pim, pam, pum* egin dituzte. Langabezi tasa %8,2 an dago gaur egun eta eskualdera etortzen bagara datuak izugarriak dira: 8.000 pertsona aurkitzen dira lanik gabe eta hauetatik 2.000 ezer kobratzen ez dutela.

ELAk sistema kapitalista zalantzan jartzen al du?

Bai. Gure ustez kapitalismoa oso oldarkor dago eta administrazioa kapitalismoaren jarraitzailea. Azter dezagun fiskaltasunarekin duen jarrera adibidez. Argi esaten dugu, langileoi hilerio dirua kentzen digutela Persona Fisikoan

Errentaren gaineko Zergaren (PFZ) bidez. Patronalari berriz ez diote ezer kentzen, ez baitago Patrimoniaren edo Ondare Higiezinaren gaineko zergarik. Eztabaidatan ibili arren Elkartearen Gaineko Zergaren inguruan, hau ere ez dute ordaintzen, horretarako irabaziak aurkeztu behar izaten baitira eta enpresen erdiek irabaziak ez dituzte deklaritzen. Ondorioa? Diru bilketa bakarra hemen langileen bidez datorrela. Gero, diru hori patronalaren gastuak estaltzeko erabiltzen dute, enpresariet ematen diete, inbertitu egin behar da etabar esanaz. Eta administrazioak noiz inbertitu behar du langileengan?

Enpresariengan inbertitzea ona da. Izan ere, hauek sortzen dituzte lanpostuak. Ondorioz, inbertsio horrek gizartearen onura dakar. Eskerrak eman beharrean gaude.

Hemen gauza bat argi dago, enpresariet abantaila guztiak ematen dizkietela; hauek ordaindu behar dituzten kotizazio guztiak kentzea eskatzen dute; dirulaguntza mordera jasotzen dute. Eta hauek zer esaten dute? Krisia konpondu behar dutela eta horretarako malgutasunez jokatu behar dela. Zein da honen eragina ordea? Eurek merkatu guztia kontrolatu nahi dute: eskatu, eskatu eta eskatu besterik ez dute egiten gero ezer ez ordaintzeko. Zerga guztiak langileontzat eta guri kendutako dirua eurentzat. Nahikoa da. Euskal Herrian ez al dago behar nagusirik diru hori haruntza bideratzeko? Ogasuna dagoen bezala dago, hezkuntza, hirugarren adinekoentzat ez

«Greba orokorra? Ez dugu ezer bazterten. Mobilizazioetan barneratuta gaude orain»

dago erresidentzia publikorik,... Honen aurrean zer egiten dute? Adibidez AHTn inbertitzen dute. Inongo kontsularik gabe eta berriak horrela erabaki dutelako. Pasaiko portua, beste adibide bat. Argi dago sistemak ez duela funtzionatzen. Sistema hau ez da posible. Bildu dirua baina gizartearen gastatzeko, ez batzuenagan bakarrik.

Ez da posible. Baina hauteskundeak iristen direnean, langile askok eskuinaren babesa nahi du.

ELAtik oso argi esan izan dugu beti, gu ez gara sindikatu partidista bat. Guk politika publikoak salatzeko ditugu, bat egon edo bestea egon. Politika publikoak salatzeko ditugun einean, argi esan behar dugu publikoak pribatizatzea irabazi batzuen izenean ez dela posible. Hori da gure lana. Orain adibidez hirugarren adinekoen erresidentzietan mobilizazioetan gaude. Indar korrelazioa bat dugun einean hor egongo gara, aurrez aurre, salaketan.

Saharari begira jarriko dira gaur arratsaldean, Ahoz aho jaialdian

Kultura » Erbestean hezitako saharar poeta talde batek poesia errezitaldia eskainiko du Auzo Etxe elkartearen.

ESTI ZEIZA

La Caratulak antolatutako ahoz-kotasunaren nazioarteko jaialdiaren baitan dago egun hauetan Tolosan ospatzen ari den Ahoz aho ekimena. Hala, aurten Saharar her-

ria omendu nahi izan dute antolatzaileek eta honekin lotutako zenbait ekitaldi prestatu dituzte.

Sahararren arteko laguntasunaren belaunaldia izeneko poeten taldeak saio berezi bat eskani zuen atzo gauean Ereite elkartearen bertan, hasanieraz saharar ohituraren hainbat poesia errezitatu zituzten. Euskaraz abesten den bertsoaren antzekotasun batzuk ditu honek, errima kontuan hartzen baita, eta bapatean botatzen baitira, une horretan asmatuta.

Gaur, Sahararen inguruan hitz egiten duen poesia, gaztelera Sahararren arteko laguntasunaren belaunaldia izeneko poeten taldeak poesia emanaldi bat eskainiko du 20:00etan Amarozko Auzo Etxe elkartearen. Gainontzeko saioak bezala, edonor joan ahal izango da eta sarrera doakoa izango da.

Idazle talde hau 2005ean sortu zen Madrilan. Sei lagunek osatzen dute, eta denak ere erbestean hazi diren saharar dira. Beraien hel-

burua saharar kultura zabaltea eta defendatzea da. Chejdan Mahmud taldekideak azaldukoaren arabera «Saharar herriaren borroka laguntzeko bidea da hau». Gaineratu zuen, «bakoitzak bere alde-tik egiten duen poesia gain, erabaki genuen, batu, eta denen artean, Sahararen alde lan egitea, kultur arlotik». «Ez gara militarrik, honenbestez, hitza da gure arma» dio Mahmudek. Beraien webgunea da www.generacionamistadsaharaii.com.

«Hasanieraz egiten den poesia oso zaila da, horregatik, helduek bakarrik dakite»

CHEJDAN MAHMUD » Poeta

Poesia » Sahararekin lotura duten gaiak jorratuko dituzte gaur arratsaldean, Amarotzen izango den poesia emanaldian.

E. ZEIZA

Sahararren arteko laguntasunaren belaunaldia izeneko poeten taldekide da Chejdan Mahmud. Atzo, Ahoz aho jaialdiaren baitan Saharar eta Mauritaniar tradizio handia duen poesia errezitaldia eskaini zuten. Hau hasanieraz egiten da, eta ahoz-kotasunaren oinarria. Gaur, berriz, talde honek berak, gaztelera, beste errezitaldi bat eskainiko du Amarozko Auzo Etxe elkartearen, 20:00etan.

Zeintzuk dira saharar poesiaren ezaugarri nagusiak?

Tradizio handia du ahozko poesiak gure herrialdean. Helduentzako da hau. Zenbait lagun esertzen dira, eta gai baten inguruan poesiak esaten hasten dira. Elkarri desafio egiten diote poesia eginez. Honek poesiaren egitura du, errima baitu eta hitz egiteko modu berezia erabili behar baita. Edozeinek ezin du egin, ez baita erraza. Oso polita da, eta orekatua. Beste ezaugarrietako bat da bapatekotasuna, hau da, une horretan bertan asmatzen da.

Ahotsaz gain beste euskarrik erabiltzen al duzue?

Ez. Esaterako, ez dira musikatuak. Kuban antzeko zerbaitek egiten da, baina honi musika gehitzen zaio. Hasanieraz egiten denari ez.

Poesia horiek gordetzen al dira?

Ez, ez dagordetzen, baina oraindik ere jende askok egiten du, inprobisatuz. Ganaduaren, maitasunaren, emakumeen eta lurren inguruan hitz egiten dute orain ere. Nabarmentzekoa da, batez ere gizonek egiten dutela poesia hau. Bestalde,

umore eta salaketa joera ere badute. Tonu berezi batean esanak dira.

Nondik ezagutzen duzu poesia hau?

Ni gaztelera entzunez hazi nintzen, eta ulertzen dut, baina ez dakit egiten. Denborapasat da han, hemen karta jokoa bezala.

Non errezitatzen da poesia hori?

Haimetan biltzen da jendea, eta han egiten da, lagun artean. Hauek gure etxeak dira, eta bertan biltzen gara denak.

Ahozko tradizio hori hurrengo belaunaldiei zabaltzen ari al da?

Hasanieraz egiten den poesia oso zaila da berez. Hori dela eta, helduentzat bakarrik da. Haurrek ez dute ulertzen, eta txikiak direnean ez zaie erakusten. 35-40 urte ingururekin ikasten dugu. Dena den, bi poeta saharar oso ezagunek zenbait poesia bildu dituzte, eta liburutuan argitaratu dituzte.

Zuk ere egiten al duzue?

Ez, nik gaztelera bakarrik egiten dut poesia. Izan ere, nire hasaniera

oso xumea da. Hitz egiten dut, eta ulertzen dut hizkuntza, baina ez naiz gai poesia egiteko. Saharara joaten naizenean, nire hitz egiteko modua ikustean, barre egiten didate. Hori dela eta, atzoko saioan, beste poetek idatzitako testuak errezitatu genituen.

Gaurko emanaldiak ba al du atzokoarekin antzekotasunik?

Ez, erabat ezberdinak dira. Gu, Kuban hezitu gara, eta gaurko saioan, gaztelera idatzitako poesiak errezitatuko ditugu. Gu, guk idatziak dira hauek, nik hizkuntza honetan idazten baitut. Hala ere, aipatzekoa da, gure testu guztiak Sahararekin dutela lotura.



Chejdan Mahmud saharar poeta eta Bea Larrañaga jaialdiko antolatzailea. ESTI ZEIZA

Laburrak

Usabalko dutxetako arazoa konpondu nahian ari dira

KIROLA » Usabal kiroldegiko dutxen temperatura dela eta, erabiltzaileek eta abonatuek pairatzen ari diren arazoez arduratuta, Udaleko Kirol Zerbitzuak adierazi du, ahalginak eta bost egiten ari direla hau konpontzeko. Hala, harremanetan jarri diren iningeniaritzekin, instalazioan jarduten ari dira eta arazoaren jatorria identifikatzeko enpresa-espezializatuak kontsultatu dituzte, irtenbidea aurkitzeko. Era berean, Kirol Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkiete erabiltzaileei, akatsa horien ondorioak pairatzen dituztenei, erakusten ari diren pazientziagatik.

Usabalgo rokodromoa inauguratuko dute laster

KIROLA » Datorren asteazkenean, hilaren 18an, Usabal kiroldegian eraiki berri duten rokodromoa inauguratuko dute. 18:15ean hasiko da ekitaldia, eta bertan lau emakume eskalatzailerak erakustaldia eskainiko dute.

'Revolutionary Road' filma ikusteko aukera Leidorren

KULTURA » Hainbat film ikusteko aukera izango da asteburu honetan Leidor antzokian. Hasteke, gaur, 22:30ean eta bihar 22:00etan Sam Mendes zuzendariaren *Revolutionary Road* ikusteko aukera izango da. Leonardo Di Caprio eta Kate Winslet berriz elkarrekin lan egin dute film honetan. Bestetik, bihar 17:00etan hurrentzako saioa izango da *El linde perdido* lanarekin. Iluntzean, 19:30ean, *El hijo de Rambow* emanango dute. Azkenik, astelehenean, ikuslearen egunean, 20:30etik aurrera, berriro, Sam Mendesen lana eskainiko dute.

Oteizaren erakusketa ikusgai, gaur, egun guztian

KULTURA » Oteiza Tolosan ekimenaren baitan, *Oteiza, bizirako proiektua* izeneko erakusketa ikusgai da egun hauetan Aranburu Jauregian. Larunbatetan, goizez nahiz arratsaldean dago zabalik.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baserria.** Alkizan baserria alokairuan. Txukun-txukuna, bi gela, sukalde ederra, egongela eta koma, berritua. Hiru solairu ditu, bi

terrazza 30 metro² eta 20 metro² dituena. Lursaila etxe aurrean, 500 metro². 1.000 euro hilabetean. Interesatuak deitu 619 34 93 85.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

■ **Ibarrako Xepa Kirol Elkarteak** ■
2.009ko urteko batzarrean 7 bazkide berriren sarrera onartu zuen. Norbait interesaturik balego jarri dadila harremanetan honako telefono hauetan:
656 77 19 56 • 679 234 496

Gaurtik aurrera ikusgai dago Tolosako GKo Galerian Eli Garmendiaren erakusketa; Bartzelonako artisten komunitate batek non eta nola egiten duen lan erakutsi nahi du.

Artisten lana irudien bidez

INIGO TERRADILLOS

Artisten lan egiteko modua erakutsiz artea egitea. Euren lantokiak sormenerako espazio nola bihurtzen dituzten ezagutzera eman. Buruan ideiak izatetik azken emaitza lortzeraino igarotako bidea irudikatu. Artisten egunerokoari, arteari hausnarketa, gogoeta. Artealanda, artearekin.

Hori da, GKo Galerian (Kale Nagusia, 4) gaur irekiko duten erakusketan ikusiko ahalko dena, hau da, artisten eguneroko jarduna nolakoa den. *C/Mexico 19* du izena lan honek, eta Eli Garmendia (Tolosa, 1984) da egilea. Lehendabiziko aldiz aurkeztuko du bere lana jaioerriaren, eta «kurioso, bitxia» izango dela dio. Era berean, estreinako aldiz jarriko du bakarka erakusketa, izan ere, Kasua izeneko argazkilari taldearen baitan aritzen da normalean. 2006az geroztik helburu berdinak batzen dituen jatorri desberdineko hainbat emakume ari dira lanean. «Lehen pertsona egindako proiektuak sortu nahi ditugu, taldeko lanean enfasia jarritz», dio. «Emaitza begirada askoren batuketara; argazkilari bakoitzaren ikuspuntuaren in-

guruan erreflexioa sortzea da helburua».

Horren isla da GKo Galerian ikusgai dagoena. Bi zati ditu erakusketak: batetik ikus-entzunezko bat egongo da, 15 minutu ingurukoa; Bartzelonako Trafic 08 argazki jaialdirako *erresistentzia* gaiarekin egin zuten proiektua da: «Bartzelonako Mexiko kaleko E, H, L eta M lokaletan bizi den artista komunitateak industria lokal hauek bizitzeko eta sormenerako espazio berezi bihurtu dituzte. Guk argazkien bidez, eta dokumental itxura emanez, non eta nola bizi den artisten komunitate bat erakutsi nahi izan dugu».

Bigarren zatia artista tolosarrak dokumentala egiteko ateratako argazkiekin dago osatua; «Nire kasuan, Naroma izena duen artista alemaniarrean eta bere lokalean oinarritu nintzen; ONG moduko bat sortu zuen, Bartzelonara lanera joaten diren artistei bizilekua emanez. Bere bizitoki eta lantokian dagoen atmosfera argazkien bidez harrapatzen saiatu nintzen». Argazki hauek tamaina handian daude horma-irudi moduan GKo Galeriarako paretean itsatsita.



Eli Garmendia tolosarra, atzo, GKo Galerian erakusketa jartzen. I.T.

Uharte txikia bat hiri handiaren erdigunean

Bartzelonaren erdigunean kokaturik dago artista hauen bizilekua, bertan dagoen industrialde batean. «Hiri handiaren baitango zonalde berezi bat da, horregatik iruditu zitzaigun interesgarria artista hauetan oinarrituriko proiektua burutzera, erabat berezia delako jende honen lan egiteko modua».

Bartzelonako jaialdian erakustez gain, beste hainbat lekutan ere erakutsi dute lana, eta harrera ona izan duela dio Garmendiak.

» DATUAK

- **Erakusketa.** *C/Mexico 19*.
- **Egilea.** Eli Garmendia tolosarra.
- **Lekua.** Tolosako GKo Galeria (Kale Nagusia, 4).
- **Iraupena.** Gaur izango da irekiera, 20:00etan, eta apirilaren 4ra arte izango da ikusgai.
- **Gaia.** Bartzelonako artisten komunitate bat non eta nola bizi den erakusten du, 15 minutuko iraupea duen ikus-entzunezko batekin, eta Eli Garmendiak ateratako argazkiekin.

«Hainbat tabernatan egon gara lanarekin, eta orain Tolosan dagoen bezala, apirilean ere baditugu hainbat leku finkaturik; horretaz gain, maiatzean Sevillako jaialdi batean ere hartuko dugu parte lan berri batekin, eta udazkenerako ere baditugu proiektuak».

Tolosarrak herritar oro gonbidatu nahi du GKo Galeriatik igarotzera, «erakusketaren bidez artista hauek nola egiten duten lan ezagutu ahaliko baitute; gainera, ilusio handiarekin egin dugun lana izan da».

tolosaldeko, leitzaldeko eta goierriko

ostalaritza Gida 2009

Jatetxeak, sagargotegiak, erretegiak eta pintxo tabernak biltzen dituen gidarik osatuena

..orain tolosaldeko-hitza.info-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatuena: argazkiak, informazio erabilgarria, iragarlearen webgunera link zuzena.

Bilatzaile erabilgarria

Hitza guztien gida hitza.info-n

hitza

I. Iurre Bertsopaper lehiaketa jarri du martxan Iurre elkarteak

Kultura » Bertsolaritza lantzen duten Tolosako ikastetxeetako neska-mutil guztiek hartuko dute parte.

ERREDAKZIOA

Iurre elkartearen ekimenez sorturiko I. Iurre Bertsopaper lehiaketa abian da, Gipuzkoako Bertsotzale Elkartearen laguntzarekin. Aurtengo lehenengo urtea denez, Tolosako ikastetxeetako neska-mutilak eman ahal izango dutela izena azaldu dute antolatzaileek. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Bertsotzale Elkarteak irakasleek bertsolaritza lantzen duten ikasgelatara neska mutilgo guztiek parte hartuko dute.

Bertan parte hartuko duten gaztetxoek 4 kopia edo 2 bertso presatatu beharko dituzte lehiaketarako. Gainera, lehiaketan parte hartzen dutenen artean irabazle suertatzen direnen artean sariak ere izango dira, lehenengo sei postuetan geratzen direnen artean, hain zuzen.

Ondorengoak izango dira eskuratu ahaliko dituzten sariak: irabazleak Aralar Kirolak dendan erabili ahal izateko 150 euroko balea eskuratuko du, askari mundialarekin batera; bigarrenak oroigarria jasoko du, eta 100 euroko balea Aralar Kirolak dendan erabiltzeko; hirugarrenak oroigarria eta 75 euroko balea jasoko du denda berean erabiltzeko, eta laugarren, bosgarren eta seigarren geratzen direnentzat aipamen berezia.

Laburrak

Tolosako Musika Banda, bihar, zuzenean, Usurbilen

MUSIKA » Tolosako Musika Bandak bihar kontzertua eskainiko du Usurbilen. 12:30ean izango da herriko pilotalekuan. Kontzertua baino lehen, 11:30ean kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar.

Merkatu Txikia igandera arte izango da zabalik

ELKARTASUNA » Amarotz Auzo Elkarteak antolatuta, Merkatu Txikia izango da igandera arte. Bertan biltzen diren dirua Nikaraguako emakumeen zentro bati laguntzeko baliatuko dute. Gaur eta bihar, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsalde, 15:00etatik 16:00etara egongo da zabalik. Gainera, igandera arte bste ekimen bat ere jarriko dute abian, izan ere, pintxo solidarioak erosteko aukera izango da, eta ardo baita ere. Lortutako dirua, materialarekin bezala, Nikaragua laguntzeko izango da.

Iñaki Antiguedadek ur kudeaketari buruzko hitzaldia emango du

Amezketak » Ezker abertzaleak antolatutako hitzaldian Ur kontsorzioaren sartzearen abantailak eta trabak azalduko ditu.

ERREDAKZIOA

Datorren asteartean, Amezketako balioanitzeko gelan 19:30ean hasita, Iñaki Antiguedad geologoak bideratutako hitzaldia izango da. Astearteko hitzaldiari *Hamaika argibide uraren inguruan* deitu diote eta ezker abertzaleak antolatutakoa da. Amezketan, azken boladan uraren inguruan hainbat komeria izan dituzte. Ohiko bilkuretan, esaterako, ez dira adostasun batera iristen aspaldian, ur kudeaketaren harira.

Ohiko bilkuretan Kimu Berriak Taldea Amezketako herria Ur Kontsorzioaren sartzearen aldekoa da, eta AEL eta EAE-ANV, berriaz, ez. Amezketako uren kudeaketaren parte bat Kontsorzioak eramaten du 1995. urteaz geroztik eta beste erdia, aldiz, herriak. Amezketako ezker abertzaleak, uren kudeaketa nola funtzionatzaren duten azaltzeko Iñaki Antiguedad adituarekin jarri dira harremanetan, herritarrei alternatibak eta dauden aukera guztiak azaltzeko.

Une honetan Amezketako egoera hau da: ur-sarearen parte bat kontsorzioaren dago sartuta eta beste parte herriak berak kudeatzen du. Kontsorzioa altako sareaz arduratzen da, hau da; ura jaitzen den lekutik ur biltegiakoz zatiaz. Bere garaian ur biltegia egiteko beharra zegoen eta «orduko Udaltaldeari inbertsio oso handia zela iruditu zitzaionez, kontsorzioaren sartzeara erabaki zuten, gastu hauei kontsorzioak aurre egiteko».

Kontsorzioak bere gain hartu zituen iturritik deponitorako hodiak berritzea eta biltegia bera ere berritzea. Bajako sarea edo beheko parte da, biltegitik herritarrei iristen zaien bitarteko zatia, alegia. Gaur egun, zati horren arduraketa kudeaketa Udaletxeak eramaten du. Bi horiek biltzen dituen zerbitzu integrala da eta KBTk nahi duena, kontsorzioak berak dena eramatea da, zerbitzu integrala.

Obra egitea, «ezinbestekoa»

Herrian inbertsio batzuk egin behar direla aurreikusten da. «Hauek kontsorzioak egitea nahi du KBTk eta Kontsorzioa prest dago horretarako. Herritarrei gehiago kostatuko litzaieke, baina Udaletxeak ordainduko luke». Ezker abertzalearen ikuspuntutik, kontsorzioaren beharrik ez du herriak, «ur faltarik ez dagoelako eta ur faltarik ez genuke behin ere



Urzabaleta erreka edo Lizeagako iturburua izenarekin ere ezaguna den ura herritarrek edaten duten ura da. Mina inguruetatik jaitzen da. N. URIBIZU

izango gainera. Ura non dagoen ikusita eta herrian bertan nola dagoen osatuta ikusita, inbertsio ikaragarriak ez lirake egin behar».

«Kontsorzioa bezalako enpresa pribatu batek duen kudeaketa eta egitura Amezketarentzako gehiegi dela iruditzen zaigu». Uraren prezioari kontsorzioak eramaten dituen zerbitzu guztien

Biltegiak zuen kostua ikusirik, Kontsorzioaren sartzeara erabaki zuten orduko Udalak

Espainiako Gobernutik herriak jasoko duen dirua ur sarea hobetzeko erabiliko dute

kostea eransten zaio, ez hodiak, kloratzea eta abar. Gastu horiez gain, hor dagoen egitura guztien kostuare sartzeara metro kubo bakoitzari, portzentualki».

Kontsorzioak, «inbertsio batzuk egin behar dituela planteatzen duenean eta guk kontsorzio-tik atera nahi dugula planteatzen dugunean erantzuten diguna da, beraiek inbertitutako diru guztia bueltatu egin behar zaiola». Amezketak inbertsio batzuk egin behar ditu, eta «bere kabuz kudeaketa publiko bat emanez gero-Udalak berak emanez-, egin behar dituen inbertsio horietatik diru laguntza batzuk jasotzeko eskubidea daukagu».

Kontsorzioaren egonez gero, «ez

genuke diru laguntza hori jasoko, kontsorzioak baizik».

150.000 euroko inbertsioa behar dela kalkulatu dute herrian, behar dena konpontzeko. «Kontsorzioak diru hori jarririko luke baina ura erreperatu beharko luke». Aldiz, «herriak bere gain hartuko balu gastu hori, herriak inbertitutako luke baina horrengatik diru laguntza batzuk jasoko lituzke. Kudeaketan alde handia ikusten dugu. Amezketak bezalako herri batean ez dugu inoren beharrik ikusten kudeaketarako».

Historia pixka bat

1929. urtean Zazpitturri errekatik herrira ura ekartzeko proiektua egin zen. Lan hauen arduraketa Lorenzo Etxeberriak hartu zuen. Garai honetan, Seroretetik Txikilora bitarteko etxeen lehen ur-hornidura osatu zuten. 1930ean hornidura martxan jarri zen.

1956. urtean, Amezketako ia he-

rrigune osorako hornidura osatuzat eman zen, herri guztiari zerbitzua eskainiz. Garikano Goñi agintaria inaugurazioan izan zen. Duela 14 urte gaur egungo biltegia egin zen, Amezketako Udalak Ur kontsorzioarekin akordioa sinatu ondoren. Gaur arte, «herritar bakoitzak bere kontsumoaren ordainketak egiteaz gain, Udalak 762.373 euro ordainduak dizkio kontsorzioari jada kanonetan».

Gaur egungo egoera

Herriko ur instalazioak egoera herria dela kalkulatuta dute herriaren daude paper fabrikatik behera; «Horrek ur asko galtzea dakar. Ura bera galtzeaz gain, ordea, Udalarik galera ekonomikoak suposatzen dizkio, Ur kontsorzioari biltegitik ateratzen den ur guztia ordaintzeko akordioa baitu sinatua, kontsorzioak jarrirako prezioetan». Bidean hodiaren egoera txarrengatik galtzen den ur hori ere ordaindu behar dute.

Hori horrela, erabiltzen ez den uraren ordainketa dela eta, dirutza handia suposatzen du herriarentzat. Udalaren arazoetako bat da hau, izan ere «ez baitatuz bat depositoko kontagailuan atzeratzen den kopurua eta etxeetako kontagailuetan agertzen diren kopurua».

Galerez gain, kontuan hartu beharkekoa da kontsorzioari egiten zaizkion kontzeptu desberdinetako ordainketak. Batetik, «urteetan ordainduz goazen uraren kanona, bestetik horniduraren ordainketa legoke» eta hirugarren zatia konponketei dagokion izango litzateke. Hauek bateratuta, urtero kontsorzioari 70.300 euro ordaintzen zaito, herritarrengandik jasotzen dena berriz, 33.300 euro kopurua delarik. «Argi ikusten da %50etik gorako galera suposatzen duela». Honen aurrean, ezker abertzaleak ez du argi ikusten kontsorzioaren herriarekiko ekarpena.

168.847 euro ur sarearentzat

Duela hilabete bat Zapatero Plana delakoaren bitartez, Amezketak 168.847 euro inguru jasoko duela argitaratu zuten. Guztia ur sarea eta zorua egoera onean jartzeko erabiliko dute.

Korrika 16ri laguntzeko ekitaldiak asteazkenean hasiko dira

Alegia » Mus Txapelketa, dokumentala eta hamaiketako prestatu ditu Korrikako herriko taldeak.

ERREDAKZIOA

Alegian Korrika 16ri laguntzeko eta jendea pixka bat girotzen hasitako Korrikako taldeek hainbat ekitaldi antolatuta dituzte. Apirilaren 2an pasako da herriatik.

Hilaren 18an, asteazkena, Mus Txapelketa antolatuta dute Intxurre elkarteak. Bertan parte hartzeko 10 euro ordaindu behar da eta irabazleentzat sariak egongo dira.

Hilaren 26an aurtengo Korrikak omendutako inguruko dokumentala jarrirako dute: *Bidaia intimoak*, hain zuzen. Kultur Etxean izango da, 19:00etan hasita. Hilaren 29an herriko plazan korrikaren aldeko hamaiketako prestatu dute.

Etzi eta etzidamu udaletxean, batzorde bilerak izango dira

ERREDAKZIOA

Etzi eta etzidamu Amezketako udaletxean batzorde bilerak izango dira. Astelehenean hirigintza-obretarako batzordea eta kontuen batzorde berezia egingo dute, 20:30ean hasita. Bertan industrialdeko proposamenaz, aurrekontuen likidazioaren onarpena eta ur sarea eta zoladura berriaren obra esleitzeko proposamenez ariko dira.

Astearteko bileran kultura, gi-zarte ongizate eta ingurumena batzordea bilduko da 21:00etan. Lokalen, jubilatuen ibilaldien, musika ekipoaren eskaera, Aralar parkeko bidea eta minatako proiektuen inguruan ariko dira.

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa). Etxeak, Allirin, Larramendin eta San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean, Iurren eta Batxilerriz Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa). Etxebizitzak, Kale Nagusian, Araba etorbidean, Batxilerriz Zaldibian.
Salgai (Legorreta eta Irurra). Etxebizitza eraberritzeko, Legorretan 32.000.000 pztz eta Iruran 20.000.000 pztz.
Salgai (Irura). Etxebizitza sartzeko moduan, Eskaintza ona.
Salgai. Garaje itxiak eta irekiak. Amartzen (Tolosa) eta Ibarran.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

SkunkFunk Tolosa
Kale Nagusia 21 - 23
SkunkFunk denda berria
GREENER FUNK

E Elkarrizketa**MOISES MATO** › Antzerki pedagogo eta zuzendaria

Aduna » Entzutearen Antzerkia landu du azken 18 urteetan Moises Matok; antzerkiaren adar honek ikuspuntu asko berregituratzeko baliagarria dela dio.

REBEKA CALVO

Adunako Asvinenea zentroak Entzutearen Antzerkia lantzeko ikastaroa antolatu du hilaren 28rako eta 29rako. Madrilgo Metaforas Aretoko Moises Mato gerturatuko da eskualdera tailerra eskaintzeko, izan ere Mato antzerki zuzendaria izateaz gain, antzerki pedagogo ere bada. Ikastaroa 16 ordukoa da, 100 euro balio du eta hilaren 23a baino lehen eman behar da izena asvinenea@gmail.com.

Matok esandakoaren arabera, Entzutearen Antzerkiaren oinarria Gizarte Antzerkia da, baina «gaur egungo ezagurrietara egokituta». Orain 18 urte hasi ziren lantzen konpromisoko antzerki hau, nahiz eta orain 6 urte duen Entzutearen Antzerkiak «jendaurreko bizia».

Zertan datza Entzutearen Antzerkia?

Entzutearen Antzerkia Gizarte Antzerkia bezala ezagutzen den mugimenduaren barruan koka dezakegu. Orain 18 urte hasi ginen lantzen eta oinarrian Gizarte Antzerkiaren oinarria jaso dugu batetik, eta uanean uneko gertakari eta bizimoduari egokitu dugu, bestetik. Izan ere, Gizarte Antzerkia bezala ezagutzen dugun hori zapalkuntza fisikorearekin du lotura baina, gaur egun egoera desberdina da eta Espainian, esate baterako, ez dago diktadura formal bere horretan, ezkutuko opresioa baikiz; goseteen, haur-esplotazioaren eta kontzientziaren manipulazioaren mendean gaude. Erasoen aurrean antzerkiak beti egin izan du pizgarri lana, baina badirudi aipatu ditudan gaur egungo arazoan aurrean antzerkia atzean geratu dela. Horregatik diogu Gizarte Antzerkiak erabilitako metodologia zaharkitu samarra geratu dela eta berri bati ekin behar diogula.



HITZA

«Ikasleek konpromiso sentimendu sakonarekin bukatzen dute ikastaroa»

Zein da, hortaz, zuen lana?

Alde batetik, aipatu zapalkuntza egoeren aurrean egin diren ekarpen historikoak bildu ditugu, eta bestetik, hauek berregin ditugu.

Zergatik batailatuz duzue Entzutearen Antzerkia bezala?

Guretzat ezinbestekoa delako ingurua dugunari erreparatzea, ingurua entzutea, nolabait esateko. Oso gai konplexua da, baina eraberean, oso interesgarria eta beharrezkoa ere bada.

Beharrezkoa bai antzerkilarientzat eta baita gizartearentzat ere?

Noski. Gizarteari dagokionez, kultura mundutik ez da bultzatu gaur egungo munduarekiko elkarrizketarik. Zapalkuntzaren eta egitura-indarkeriaren garaia bizi dugu eta orokorrean inorrek ez dio inguruari erreparatzen. Antzerki munduari begiratuta, baita kultura munduari ere, koherentea izan nahi dutenez ez dute lortu eta azkenean sistemari laguntzen dioten lanak egin behar izan dituzte.

Ikastaroan hiru alor landuko dituzue, ezta?

Bai horrela da; inkesta, elkarrizketa eta oihu antzerkia. Inkesta antzerkian ingurua begiratzen ikasiko dugu teknika desberdinen bidez, agerikoa dena bistako eginaz, nolabait esateko. Elkarrizketa antzerkian landuko ditugun teknikekin iritzia eraikitzen ikasiko dugu, beste modu batera esanda, gure iritzia krisialdian jartzera behar izan dugu. Azken pausoa jarduna landuko dugu, hau da, aurrerako bietan begiratzen eta epaitzen ikasiko dugu eta azkenekoan jarrera aktiboa edukitzean.

Aisaldi hutsetik zein banakotasunetik urrundu eta konpromiso politikoa bultzatzen duzue.

Gizarte lana da eta hein handi batean norbanakoari laguntzen dio, baina ez da terapia moduko batekin nahastu behar. Honek hedadura politikoa du gure ustez politika eta norbanakoa batera doazelako. Zentzu honetan sentsibilitatea eta politika batera doazela uste dugu. Izan ere, sentsibilitatea poli-

tikari gabe milikeria izango litzateke eta politika sentsibilitaterik gabe, politikakaria.

Zer ikasiko du ikastarora gerturatzeko denak?

Praktika teoria baino lehen landuko dugu eta entzutea landuta lan egiten ikasiko dute. Espainia guztian eskaini dugu ikastaroa azken sei urteetan eta oso erantzun ona izan dugu nahiz eta jendearentzat nahiko kontu arrotza den. Ikasleek konpromiso sentimendu sakonarekin ateratzen dira eta beraien ikuspuntu asko berregituratu behar izaten dituzte.

Inongo laguntzarik gabe egiten ari zarete lan, gainera.

Oinarritik hasi nahi genuen, diskurto koherente batetik, eta horregatik egiten dugu lan gure kabuz, erakunde inongo laguntzarik gabe, egitura politikoa politikatik ihesi...

Krisi finantzario batean gaude, askok sistema beraren krisia bezala definitzen dutena, izan al du honek eraginik zuen lanean?

Ez gehiegi, aipatu moduan aspal-

ditik ari gara honekin lanean eta beti egin dugu lan oso egoera larrietan. Krisia iritsi den honetan gure lanaren uzta jasotzeko aukera izan dugu eta urteetan landu ditugun ekimen askoren garapenarekin egin du bat. Hau guztia lantzen hasi ginenean ez geneukan ezer; ez inongo baliabiderik, ezta

Sentsibilitatea politikarik gabe milikeria da eta politika sentsibilitaterik gabe, politikakaria

jendearen interesik ere, ez baitzekiten zertaz ari ginen hitz egiten. Une benetan latz horiek pasa eta gero, oraingoa ez zaigu horren zaila egiten.

Urte hauetan Entzutearen Antzerkiak izan ditu hainbat emaitza praktikoa aipatuko al dituzu?

Batetik, Teatrozero bezala ezagutzen den esperientzia jarri dute martxan Entzutearen Antzerkitik abiatuta. Etxeetan egiten den antzerkia bezala definitzeko. Europako beste herrialde batzuetan egindako esperientzia da: aktoreek diktaduraren aurrean zuten beldurrari aurre egiteko eta isiltasuna gainditzeko etxeetan egiten zituzten antzezlanak. Guk esperientzia hau hartuta metodologia bat garatu dugu, nolabait antzerki tradizionala buruz behera jartzeko duena. Une honetan etorkinen inguruan ari dira lanean eta edozein izan daiteke ekoizle, gainera, edozeinek antolatu ahal du eta saioa bere etxean, ikusleriak erabaitzen du antzerkia ikusi eta gero ordaindu ala ez, zenbat ordaindu... Antzerki mota hau antzezlanarekin hasten da eta elkarrizketarekin amaitu ohi da.

Topaketa Antzerkia bezala ezagutzen den esperientzia ere azpimagarria da. Pertsona bakar batek egiten duen antzerkia da eta Espainiako hiri desberdinetan egiten ari dira une honetan. Bakardadearen inguruko lana da, baina arazo politikoa bezala ulertuta, ez arazo psikologikoa bezala. Kalaian ibiltzen dira aktore hauek eta jendea antzezlanak ikusi nahi duten galdetu eta horrela bada lana egiten diote. Era honetako lanak gizarte arazo askoren aurrean begiak irekitzeko aukera ematen du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Bote Luzearen jaialdi nagusia parte hartu dute berrehun ikasle inguruk

ANOETA • Kutxak antolatutako Bote Luzearen jaialdi nagusia egin zuten atzo Anoetako plazan. Bertan Gipuzkoako LH6 mailako 16 taldek eta 200 ikasle inguruk parte hartu zuten. Eskualdeko ordezkariak Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleak izan ziren eta bertako

bi talde aritu ziren. Bote Luzea pilota modalitate zaharrena da eta Kutxak bultzatutako egitasmoaren bitartez pilota joku hori berreskuratu nahi da. Ia Gipuzkoako bi mila ikasle parte hartu dute ikasturte honetan egindako hainbat jaialditan. **HITZA**

Ertzaintzak Castrori buruzko materiala bidali du Madrilerara

Villabona » Atxiloketaren deskribapen zehatza bidali duela dio Ertzaintzak, besteak beste, atxiloketa prozesu guztiaren bideoak.

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak Manex Castro billabonatarren atxiloketaren eta inkomunikazioaren inguruko materiala bidali du Espainiako Auzitegi Nazionalera eta EAeko Epaitegi Nagusira. Castrok torturak salatu zituen inkomunikazio egoeran pasatu zituen bost egunak eta gero.

Ertzaintzak dioenez, bidalitako materialen artean atxiloketaren prozesu guztiaren «deskribapen zehatza» dago. Horrela, EAeko poliziak azaldu duenez, bidalitako materialen Castrori egindako «bost mediku azterketak, senideei bidalitako informazioa atxiloketa nola izan zen, arrazoa eta lekua zehaztuz, eta hauekin mantentutako harremanak atxilotuari bere gauzak helerazteko» daude.

Auzitegietara bidalitako materialen artean ere Castro atxilotuta eta inkomunikatuta egon zen denbora-tarte guztiko bideoak daudela azaldu du Ertzaintzak.

Funky Gaua Frida Pipol eta Acido C taldeekin

Anoeta » Gaur gauean 23:00etan hasiko da kontzertua, Gaztetxean, honen 10. urteurrenaren ospakizunaren harira.

ERREDAKZIOA

Anoetako Gaztetxea funky musikaz beteko da gaur gauean, bere 10. urteurrenaren ospakizunaren harira. Funky Gaua izendatu dute eta bertan ariko dira Frida Pipol eta Acido C taldeak. 23:00etan hasiko da kontzertua eta horren ondoren DJ Destroy-ren emanaldia izango da goizaldera arte.

Acido C 2002an sortu zuten berderatzi musikari gipuzkoarrek. 70 eta 80ko hamarkadetakoa musika beltza bezalako estiloa berreskuratu eta gaurkotasun gehiago duten estiloekin nahastea zen ideia. Eta asmo horrekin buruan, nahasketak horren osagaiak mamitu zituen: «Funk aztoratzailea, sentsualitatez bustitako soul eta acid jazz ukitua». Hainbat eszenatokietan jo dute eta zuzenekoetan «guztia ematen» dutela eta «pasioz» ari-tzen direla diote. Horrek taldekide bakoitzari «esperientzia, erritmo eta kolore» berriak bilatzera bultzatzen dio. Acido Ck bere bigarren diskoa argitaratu berri du, *StereoPropulsion*, «sentsazio eta bizipen animikoen batuketak».

Frida Pipol taldeak Erreneria-Oreteran dute bere egoitza. Beraien hitzetan, fusio hitzak deskribatzen ditu ondoen: «Bakoitzaren bizipenak elkarrekin eta gustu guztiei zukua atera berebiziko elixirra lortu arte». Taldekoek azaltzen dutenez, groove, funk, latino, rock, jazz eta afro-reggae musika estiloak nahastu dituzte.



Frida Pipol taldea zuzeneko emanaldi batean. **HITZA**



Acido C taldea kontzertu batean. **HITZA**

Laburrak

Sagainen martxoko irteera Valderejo parke naturalera

ASTEASU • Sagain mendi taldeak Valderejoko natur parkean barrena egingo du bihar martxoko ibilaldia. Bi ibilbide prestatu dituzte edozeinek egin ahal izateko. Ibilbide txikia 3 ordu eta erdi ingurukoa da eta zailtasun gutxiakoa da. Ibilbide handia 5 ordu ingurukoa da eta zailtasun ertainekoa da, batez ere iraupenarengatik. Izena emateko Asteasuko polikiroldegira deitu behar da, 943 69 34 00 zenbakirara.

Lore Etxearen kontzertua Muxkil tabernan, gaur

ZIZURKIL • Lore Etxeak kontzertua emango du gaur, 22:00etan, Zizurkilgo Muxkil tabernan. Rock, Soul eta R&B estiloak egiten ditu.

Aizkardiren Martxan izena emateko epea zabalik

VILLABONA • Aizkardi Mendi Elkar-teak antolatzen duen Mendi Martxan parte hartzeko izena emateko epea zabaldu dute. Beste urteetan bezala doakoa izango da eta www.aizkardi.com helbidera jo daiteke horretarako. Martxoaren 29an izango da ibilaldia eta egun bat lehenago bukatuko da epea izena emateko.

Transportes Lakunzaren partida Sasikoaren aurka

VILLABONA • Transportes Lakunza areto futbolero taldeak partida garrantzitsua du gaur, 18:00etan, Olaederra kiroldegian. Lidergoan berarekin berdinduta dagoen Sasi-koa taldearen aurka jokatuko du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 034. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ahoz aho jaialdia

- **Aduna.** Gala Asvinenean 22:30ean.
- **Tolosa.** Saharako Bahia Mahmud Awah, Zahara Hasnau, Ali Salem Iselmu eta Chehdan Mahmud poeten saioa Amaro azo elkartearen 20:00etan.
- **Tolosa.** Cristina Macia eta David Wapnerren saioa San Esteban azo elkartearen 18:00etan.
- **Tolosa.** Ester Poveda eta Jose Luis Melladoreen saioa Otsabi elkartearen 16:00etan.
- **Tolosa.** Itziar Rekalderen ipuin kontaketa Bonberenean 11:00etan.

Deialdiak

- **Albiztur.** Hilaren 28an Adunako Aburuza sagardotegira irteera autobusez, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afaria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udal-etxean.
- **Alkiza.** Gizezkoentzako afaria Sarasola Sagardotegian 18an, Aitaren Eguna dela eta. Izen-ematea Elizegi tabernan. Afalostearen mus txapelketa antolatuta da Elizegi tabernan afarira joan diren artean.
- **Alegia.** *Kabitik plazara:* Bertso bazkaria Kultur Etxean 14:00etan Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldiarekin, Alegiako bertso eskolarekin batera.
- **Tolosa.** Biga enkantea 11:00etan Ferialekuan.
- **Tolosa.** XIV. Zuhaitz Eguna: haurrentzako jolas didaktikoak eta zuhaitz landaketa.
- **Tolosa.** Pirritx eta Porrotx pailazoan *Piratak* haurrentzako ikuskizuna Leidor aretoan 16:30ean eta 18:30ean.
- **Tolosa.** Hilabeteko zinema bonuak salgai daude Leidor aretoan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta pelikula orduetan 12 eurotan (arratsaldekoak 8; eta gauekoak 8 euro).



Aniztasun kulturala sustatuz

IBARRA ■ Ibarroko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren eta Kutxaren laguntzarekin, *Bateko eta besteko ipuinak* liburua argitaratu berri du. Liburuak aniztasun kulturala sustatu nahi du gazteengan, aurkezpenaren argitu zuten. Hain zuzen ere, Txelo Romero Ibarroko alkateak aurkeztu zuen liburua Pablo Buitron Ekuadorrek Euskadin duen kontsularekin, Itziar Jauregi Euskara

eta Hezkuntzako udal batzordeko lehenkariarekin, eta Gonzalo Perez ekuadortarrarekin, (irudian), «herriko txikiaren artean beste herrialdeetako kulturen ezagutza sustatzeko asmoz». Udalak herriko 6 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxo guztien artean banatuko du liburua. Aurrekontua 7.892 eurokoa izan da orotara. HITZA

■ **Tolosa.** Nikaraguaren aldeko Merkatu Txikia irekita, Kultur Etxean, gaur, 10:00etatik 14:00etara.

Zinema

■ **Tolosa.** *Revolutionary road* filma emango dute Leidor aretoan: gaur 22:30ean, bihar 22:00etan eta etzi (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

Kirola

■ **Lizartza.** Insaluz XXI. Txirrindulari Saria, 15:30etik aurrera abiatuta.
■ **Tolosa.** San Jose zubirako Tuc de Mulleres eta Besiberrira (Aran bailara) irteera antolatuta du Oargi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen.

Musika

■ **Tolosa.** Nekro eta Bocio musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

digitala
h
@

Astelehenean, martxoak 16, 16:30ean
KIKE AMONARRIZ
tolosarrarekin elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean

